



**2024KO EKAINAREN 3KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko ekainaren 3an, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Oramazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2024ko maiatzaren 20an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 41 zenbaki-dun zerrenda, HIRUROGEITA ZORTZI MILA EHUN ETA HIRUROGETIA HAMAHIRU euro ETA BERROGEITA HAMAIKA zentimokoa (68.173,51 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**III.- ZUBIZKITZA AUZOKO 2. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 1. OBRA-EGIAZTAGI-
RIA.-**

Zubizkitza auzoko 2. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen lehen obra egiaztagiria egin dute. Lehen obra egiaztagiri honen zenbatekoa BERROGEITA BEDERATZI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU euro ETA HAMABI zentimokoa (49.374,12 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI euro ETA BERROGEITA HAMAHAZPI zentimokoa (10.368,57 €) da, guztira BERROGEITA HEMERETZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA BI euro ETA HIRUROGEITA BEDERATZI zentimokoa (59.742,69 €).

Lanak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L. enpresa ari da burutzen.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.



Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botoirik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), lehen obra egiaztagiria hau onartu egin du.

IV.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Antzar Korrikalariak taldeari.-

2024ko San Prudentzio jaietan, apirilaren 26an, VI Bikote Kross lasterketa antolatzeagatik, 4.755,76 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.09.341.00 partidatik egingo da.

Lartxai elkarteari.-

2024ko San Prudentzio jaietan, maiatzaren 1ean, bakailau lehiaketa antolatzeagatik 1.875.60 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.12.334.00 partidatik egingo da.

V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Zagupe astialdi taldeari.-

2024ko martxoan, Korrika dela eta, haurrentzako jolasak antolatzeagatik 1.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 481.05.335.00 partidatik.

Euskarako eskoletara joateagatik dirulaguntza deialdia 2024-2025 ikasturterako.

Norgehiagoka-erregimenean euskarako eskoletara joateagatik dirulaguntzen 2024-2025 ikasturterako deialdia aurkeztu da bere onarpenerako.



Deialdiaren testuak honela dio:

"EUSKARAKO ESKOLETARA JOATEAGATIK
DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2024-2025 IKASTURTERAKO.

LAZKAOKO
UDALA

1. artikulua. Xedea.



Laguntza hauen deialdi honen xedea da 2024-2025 ikasturtean euskarako eskoletara joateagatik laguntza ematea.

2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 15.000 eurokoa izango da, eta hori 2024. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.480.01.335.00 zbki.dun partida, «Euskara: euskara ikast.Dirulag.» .

3. artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta euskarako eskoletara joateagatik eta gida baimena euskaraz ateratzeagatik laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2022-ko maiatzaren 23an onartutakoak.

4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aukezteko epea.

4.1. Dokumentazioa:

- a) Diru laguntza-eskabide normalizatua, beteta eta sinatuta.
- b) NAN dokumentuaren fotokopia.
- c) Banku-erakunde baten egiaztagiria, eskatzailea kontu baten titularra dela adierazten duena.
- d) Ikastaroaren matrikulazio orria.
- e) Egindako gastua justifikatzen duen faktura orijinalak.
- f) Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- g) Desenplegu-egoeran dagoela edo ikasten ari dela egiaztatzen duen ziurtagiria, eta nomina edo pentsio gisa jasotzen duen dirua lanean ari den ala ez adierazten duen ziurtagiria.

4.2. Eskariak aurkezteko epea:

2024ko irailaren 1etik, 2025ko uztailaren 31 arte.

Eskabideak ikastaroa egiten hasterakoan aurkeztuko dira.”



Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, 2024-2025 ikasturterako euskara eskoletara joateagatik dirulaguntzen deialdia onartzea erabaki du.

VI.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du:

San Benito Ikastolari.-

Eskola Kirol Egokituaren (EKE) egitasmoa 2023/2024 ikasturtean aurrera eramateagatik, 1.674 € ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 481.11.341.00 partidatik.

VII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bigarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	430 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	440 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	250 €
GERRIKO SL	160 €
GERRIKO SL	175 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	1.000 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	550 €
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	2.475 €
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	1.195 €
RAQUEL GARCIA MENDOZA (PRANAQI)	85 €
AMAIA SORAZU (EKILORE)	170 €
IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA)	1.430 €
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	1.750 €





LAZKAOKO
UDALA

NAGORE COLORADO... (MANAKO)	1.030 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	710 €
FONTANERIA JESUS GOMEZ SL	800 €
JON SANTOS MARTIN	105 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	160 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	1.180 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	525 €
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	585 €
AMAIA CARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	85 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	3.885 €
GUZTIRA	19.175 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak eta berrogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA